



**BILBOKO**  
HIRUHILEKO  
KOIUNTURA  
TXOSTENA  
**2024**

**B**ilbao Observatorio

## LABURPENEA

2024ko lehen hiruhilekoa hala nola hasi zen, besteak beste urtarokotasun-eragin handia duten jarduera batzuk moteldu zirelako, baina dinamismo galera txikia izan dezake baita ere, edonola ere, argi eta garbi positiboan jarraitzen duten jardueraren hazkunde balioen barnean. 2023 bukaeran aurreikusitako balantzea hobetu zen, eta hein handi batean, 2024 eta 2025erako itxaropenen oinarria da hain zuzen ere laurtekoan (2020tik 2023ra) frogatutako erresilientzia, zalantza sozial, ekonomiko-finantzario eta geopolitiko handiek baldintzatuta.

2024. urtea, ekonomia dinamismoa mantentzeko (edo hobetzeko) erronkaren aurrean

Nazioarteko Diru Funtsaren aurreikuspenek (2024ko apirilekoak) urte hasierakoei jarraipena ematen diete eta munduko ekonomia hazkunderako aurreikuspenak mantentzen dituzte (+% 3,2, 2024 eta 2025erako) hiru alderdi gako hauekin bat etorriz: kontsumoaren dinamismoa, inbertsioaren sustapena eta politika monetarioen neurrien inpaktuaren oreka (inflazioaren kontrolaren eta hazkunde ekonomikoaren artean). Munduko aurreikuspen horiek ekonomia aurreratuek sostengatzen dituzte (+% 1,7 eta +% 1,8); AEBrentzako itxaropenak hobeak dira (+% 2,7 eta +% 1,9) Eurogunearekin alderatuta (+% 0,8 eta +% 1,5) Alemaniako (+% 0,2 eta +% 1,3), Frantziako (+% 0,7 eta +% 1,4) eta Italiako (+% 0,7 bi urteetarako) ahultasunak baldintzatuta, eta Espainiaren dinamismoaren aurrean (+% 1,9 eta +% 2,1).

Munduko ekonomia hazkundera egonkorra da (+% 3,2%, 2024 eta 2025ean)

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAerako 2024rako eta 2025erako hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak eguneratu ditu (+% 1,9 eta +% 2,1), Espainiari esleitutako balioekin lerrotatuta. Horrek esan nahi du 2023ko emaitzak mantendu edo hobetuko direla (+% 1,8 eta +% 1,7, BPGd-aren hazkundera eta LOB lanpostuena, hurrenez hurren).

% 1,9 ingurukoa euskal ekonomiarentzat

Lan-merkatuari buruzko lehen datuek aurreikuspenok egiaztatu dituzte. Hala, lehen hiruhilekoan (martxoan) Bilbon Gizarte Segurantzara afiliatuta zeuden 191.703 pertsona, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago (-% 0,7 eta 1.303 afiliazio gutxiago), baina urtetik urterako hazkunde profilarren barnean (+% 3,0 eta 5.554 afiliazio gehiago). Egiaz, hiribilduko afiliazioan erregistratutako hirugarren zifrarik handiena da, bakarrik 2023ko abenduko (193.006) eta 2024ko otsaileko (192.329) zifren atzetik; modu horretan, hiribilduan sei hilabetez jarraian 190.000 afiliazio baino gehiago daude.

Hiruhileko artean atzerakuntza izan arren (-% 0,7), Bilbon 192.000 afiliazio inguru daude

Egoiliarren kontratazio berrien bilakaerak antzeko patroia du: lehen hiruhilekoko metatuan Bilbon 26.718 kontratu berri egin ziren, urte arteko gorakada batekin (+% 7,6 eta 1.895 kontratu gehiago), hiruhilekotik hiruhilekorako atzerapenaren aurrean (-% 10,3 eta 3.052 kontratu gutxiago). Emaizta horrek erakusten du urtarokotasun-inpaktuaz haratago kontratazioaren hobekuntza mantentzeko joera dagoela eta, gainera, Bilboko egoiliarrek sinatutako kontratazio berrien ia heren bat (% 29,7) mugagabeak izan ziren.

26.718 kontratu berri, ia heren bat (% 29,7) mugagabeak

Hala eta guztiz ere, nolabaiteko dinamismoa gertatu arren, erregistratutako langabezia-tasa gelditu egin da hobekuntza ibilbidean: martxo bukaeran Bilbon 21.963 langabe erregistratu zeuden, urte arteko (+% 3,1 eta 661 langabe gehiago) eta hiruhileko arteko (+% 5,2 eta 1.077 langabe gehiago) tasan gorakadarekin. Egiaz, zifra hori 2023ko abenduko zifrarik txikienetik (20.886 langabe) urruntzen da eta jada hiru hilabetez jarraian balio horren gainetik dago (21.734 eta 21.640 urtarrilean eta otsailean).

Martxoan 22.000 langabe inguru erregistratu ziren

2024ko lehen hiruhilekoko Biztanleria aktiboaren inkestaren datuen emaitzek kalkulatu dute hiribilduko egoiliarren artean biztanleria aktiboa 162,1 mila pertsonakoa zela, landunen

(145,4 mila pertsona) eta langabeen (16,7 mila pertsona) artean banatuta. Bestalde, enplegu-tasa % 50,1en eta langabezia-tasa % 10,3n kalkulatu dira, orain dela urtebete erregistratutako antzeko balioetan (% 48,9 eta % 10,4, hurrenez hurren).

Langabezia-tasa orain dela urtebetekoaren antzekoa da (% 10,3)

Ondoren jaso diren jarduera ekonomikoen informazio espezifikoak 2023 bukaerakoa eta 2024 hasierakoa da eta bi egitate azpimarratu behar dira: alde batetik, informazioa eskuragarri dagoen ia jarduera guztiek urtea "hala nola" hasi zuten, urtarokotasunaren ondoriozko nolabaiteko moteltzearekin, eta beste alde batetik, 2023ko laugarren hiruhileko bukaerako emaitzek hobekuntza bidea egiaztatzen dute, hiribilduaren jarduera ekonomikoaren berreskuratze oinarria indartuz.

Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentak moteldu egin ziren 2023an (+% 0,4 eta -% 1,8, prezio arruntetan eta konstanteetan). EAEko sektorearen bilakaerak (Bizkaiaerentzat adierazgarria denak) baieztatzen du txikizkako merkataritzaren eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren sektoreen dinamismoak ez dutela konpentsatu handizkako merkataritzaren atzerapena.

Merkataritza-salmentak moteldu egin dira (+% 0,4 eta -% 1,8, prezio arruntetan eta konstanteetan)

Hala, Bizkaiko txikizkako merkataritzaren salmentek gorakada handia izan zuten 2023 bukaeran (+% 6,7 eta +% 2,4 prezio arruntetan eta konstanteetan). Bi segmentuen dinamismoaren emaitza izan da, bai elikaduran (+% 9,6 eta +% 2,3 prezio arruntetan eta konstanteetan) bai gainerako produktuetan ere (+% 4,3 eta +% 2,5).

(2023) txikizkako merkataritzaren salmenten igoera (+% 2,4, prezio konstanteetan)

Merkataritza-gune handiek 2024 hasieran gorakada izan dute jardueran prezio arruntetan (+% 4,2), baina prezioen efektua kenduta, balantzea negatiboa da (-% 1,9). Aurreko guztiarekin, enplegu-adierazleak jardueraren emaitza ekonomikoak baieztatzen ditu eta profila etengabe gorantz egiten mantendu da (+% 2,5 urteko lehen hiruhilekoan urte arteko tasan).

...baina merkataritza-gune handiek 2024 hasieran atzerapena izan dute (-% 1,9 prezio konstanteetan)

Halaber, urteko lehen hiruhilekoan Bizkaian 3.296 ibilgailu berri matrikulatu ziren (+% 5,3 urtetik urterako tasan); emaitza positiboa da, baina atzeratu egiten du 2023an erregistratutako hobekuntza (+% 32,4, +% 7,9, +% 7,3 eta +% 15,2, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean). Emaitza horren arrazoia izan da partikularren kanalaren jokaera ona (+% 11,5 urte arteko tasan), enpresen eta bestelako ibilgailuen jaitsiera konpentsatzen duena (-% 6,4).

Ibilgailuen matrikulazioak positiboan hasi du urtea (+% 5,3, urtetik urtera)

2024ko lehen hiruhilekoan hiribilduko hotel-jarduera apalki hazi zen ostatu-gauetan (+% 0,6) eta bidaiarientan (+% 1,0). Zehazki, 410.679 ostatu-gauen arrazoia atzerriko segmentuaren joera ona (+% 12,2) izan zen, estatukoek behera egin baitzuten (-% 6,6). Gainera, 3 izar eta gehiagoko hotelen segmentuak emaitza hobekia izan zituen (+% 3,6), eta kategoria txikiagoko taldearen jaitsiera (-% 8,6) konpentsatu zuen.

Lehen hiruhilekoan Bilbon 400.000 ostatu-gau gaudituz ziren

Bidaiari-kopuruaren bilakaerak (221.474 bidaiari) antzeko patroia du, eta ostatu-gauetan bezala (+% 11,1) nabarmenki hazi dena da eta estatuko bidaiarien jaitsiera konpentsatzen du (-% 4,3). Aurreko guztiarekin, Bilboko hotel-estabazimenduen batez besteko egonaldia 1,85 eguneko izan da, atzerritarrena baino pixka bat handiagoa (2,08 egun, estatuko bisitarien 1,71 egunen aldean).

Azterriko segmentuan babestuta, estatuko turistaren atzerapena konpentsatzen duena

Bestalde, 2024ko lehen hiruhilekoan Loiuko aireportutik 1.298.636 bidaiari garraiatu ziren (+% 15,9 urtetik urterako tasan), eta dinamismoa partekatu egin zuten estatu-segmentuak (+% 10,9) eta atzerrikoak (+% 26,1). Emaitza on hori aireportuko operazio-kopuru onean ikusten da; urtetik urtera % 5,5 gehitu da, zehazki, 10.428 operazio.

Loiuk 1,3 milioi bidaiari izan zituen 2024 hasieran (+% 15,9)

Bilboko Portuan 2024ko lehen hiruhilekoan kudeatutako salgaien trafikoa 8,5 milioi tonakoa izan da, hau da, urte arteko % 8,4ko gehikuntza. Azpimarratzekoa da martxoko emaitza positiboa, garraiatutako 3 milioi tonakoa (+% 10,8 urtetik urtera), urtarrileko gorakadaz gain (+% 22,6), baina otsaileko emaitza negatiboa izan zen (-% 5,2).

Jarduerak gora egin du Bilboko Portuan (+% 8,4)

Bizkaiko industria-ekoizpenak urte hasieran (urtarrila-otsaila bihilekoa) jardueraren hazkunde handia izan du (urte arteko +% 1,7); datu, horrek, egiaz 2023ko hobekuntza-erritmoa gainditu du (+% 0,6, +% 0,4, -% 0,3 eta +% 0,8, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean). Emaitza horren arrazoia manuflakturen industriaren dinamismoa da (+% 2,6); hazkunde hori erabakigarria da multzoan duen pisuarengatik.

Bizkaiko industria-jarduerak bultzada handia izan du urte hasieran (+% 1,7)

Bizkaiko merkatu-zerbitzuen salmentak 2023ko laugarren hiruhilekoak dira eta urte arteko hobekuntza garrantzitsua baieztatzen dute (+% 6,2 eta +% 2,6 prezio arruntetan eta konstanteetan). Hala, urteko balantzea oso positiboa da (+% 4,4 eta +% 3,7 prezio arruntetan eta konstanteetan). Hala ere, enpleguak atzerapen handia izan du laugarren hiruhilekoan (-% 1,3), eta emaitza orokorrari eragin dio (-% 0,3).

Merkatuko zerbitzuen salmentek 2023an berreskurapena baieztatu dute

2023ko laugarren hiruhilekoko Bizkaiko BPGd-aren hazkundeari esker (+% 1,6, +% 0,4, urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan), urteko hazkunde orokorra % 1,7koa izan da; zifra garrantzitsua da zalantza-egoerak eta gorakada inflazionista ikusirik. Enpleguari dagokionez, Bizkaiak 494.215 lanpostu izan ditu (LOB). 8.172 lanpostuko irabazi garbia izan da 2022rekin alderatuta (+% 1,7).

Bizkaiko BPGd-a % 1,7 hazi zen 2023an, (ia) milioi erdi lanpostuk sustatuta

Laburbilduz: Bizkaiko eta Bilboko jarduera ekonomikoari eta enpleguari buruzko lehenengo datuek baieztatu dute hasiera "hala moduzkoa" izan dela, nagusiki urteko sasoiari lotutako nolabaiteko urtarokotasunak eraginda.

2024: 2023ko emaitzak finkatu eta hobetu

Hala, hiru emaitza gako daude eta joera sostengatua dela adierazten dute. Lehenik eta behin, enplegu-oinarriaren finkatzea, afiliatuen bolumenak sostengatua, sei hilez jarraian gehieneko balioak baititu. Bigarrenik sektore-bultzada, industria-jardueraren, turistikoaren eta aire eta itsas garraioaren hasiera positiboekin. Eta hirugarrenik kontsumoaren sustapena, txikizkako merkataritzaren salmenta eta enpleguaren sekuentzian ikus daitekeena. Gainera, urteko lehen hiruhilekoan merkataritza-gune handietako salmentek joera berari konstante eutsi diote. Horrekin lotuta, EAEko hazkunde ekonomikoari eta enpleguari buruzko aurrerapen-datuek (+% 1,6 eta +% 2,0, urte arteko tasan) Bizkaia-erentzat adierazgarriak dira, eta hobekuntza sostengatuaren ibilbidea berresten dute.

Enpleguaren indarra, sektore-dinamismoa eta kontsumoarena

Egiaz, ibilbide hori ahuldu dezaketen arriskuak inflazioaren mailaren eta kudeaketaren baldintzapean daude. Alde batetik, gutxitzeko eta % 2 ingurura birbideratzeko denbora behar duen inflazioak kontsumoa eta inbertsio-erabakiak ahuldu ahalko litzuzke eta, ondorioz, jarduera ekonomikoa motelduko luke. Beste alde batetik, kasu honetan, zailagoa litzateke Europako Banku Zentralak erreferentzia-tasak jaisteko aurreratutako estrategia betetzea (ekaina). Argi dago finantzaketa-kostuak beharrezko hazkunde ekonomikoa bultzatuko duen pizgarria izango dela.

Arriskuak: inflazioa gutxitzea (% 2) interes-tasak jaisteko

## TESTUINGURUA

### Munduko ekonomia

Nazioarteko Diru Funtsak<sup>1</sup> kalkulatu du munduko ekonomia % 3,2 haziko dela 2024an eta 2025ean, 2024rako egin zen aurreko proiektzioa hamarren bat hobetuz eta 2025erakoa mantenduz. Azken finean, munduko ekonomia 2023ko erritmo berean haziko litzateke (+% 3,2), ekonomia-jardueraren erresilientzia finkatuz zati handi batean inflazioak eta horren inpaktua arintzeko politika monetarioaren gogortzeak markatutako agertokian. Horri lotuta, erakundeak hau esan du: *"banku zentralen epe motzerako lehentasuna inflazioaren jaitsiera leuna bermatzea da, baina<sup>2</sup> politikak azkarregi edo beranduegi malgutu gabe"*.

Munduko ekonomia  
% 3,2 haziko da  
2024an eta 2025ean

2024rako aurreikuspenen hobekuntza arina (+0,1 pp) babesten du ekonomia aurreratuentzat aurreikusitako gorako hazkundearen berrikuspenak (+% 1,7; +0,2pp), AEBn bultzada nabarmenduz (+% 2,7; +0,6pp) Eurogunearen apaltzearen aurrean (+% 0,8; -0,1pp); Espainia joera horretatik at geratuko litzateke eta gehien haziko den Europako ekonomia izango da (+% 1,9; +0,4pp), Alemaniaren (+% 0,2; -0,3pp), Frantziaren (+% 0,7; -0,3pp) edo Italiaren (+% 0,7; 0,0pp) dinamismo txikiagoarekin kontrastean. Bestalde, hazten eta garatzen ari diren ekonomiek hazten jarraituko dute (+% 4,2; +0,1pp), kopuru handiagoekin Txinarekin alderatuta (azken horrek garrantzi handia du munduko ekonomian). Erronka hau da: inbertsioetan eta esportazioetan oinarritutako eredutik barne-kontsumoan zentratuago dagoen beste batera igarotzea.

### Hazkunde ekonomikoan (BPGd)... (e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	24-urt		24-api	
	2024	2025	2024	2025
<b>MUNDUKO BPGd-a</b>	<b>3,1</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>
<b>Ekonomia aurreratuenak</b>	<b>1,5</b>	<b>1,8</b>	<b>1,7</b>	<b>1,8</b>
Ameriketako Estatu Batuak	2,1	1,7	2,7	1,9
<b>Eurogunea</b>	<b>0,9</b>	<b>1,7</b>	<b>0,8</b>	<b>1,5</b>
Alemania	0,5	1,6	0,2	1,3
Frantzia	1,0	1,7	0,7	1,4
Italia	0,7	1,1	0,7	0,7
Espainia	1,5	2,1	1,9	2,1
<b>Emergenteak eta garatzen ari direnak</b>	<b>4,1</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>
Txina	4,6	4,1	4,6	4,1
India	6,5	6,5	6,8	6,5
Brasil	1,7	1,9	2,2	2,1
Errusia	2,6	1,1	3,2	1,8

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

<sup>1</sup> Munduko ekonomiaren aurreikuspenen eguneraketa (2024ko apirila).

<sup>2</sup> Badirudi interes-tasen lehenengo jaitsiera (Europako Banku Zentralea) ekainean gertatuko dela.

Gauzak horrela, <sup>3</sup> Europako eta Espainiako etheen konfiantzak negatiboa izaten jarraitzen du (-15,7 eta -17,3 hurrenez hurren), baina 2023ko hirugarren hiruhilekoan hasi zen hobekuntza arinaren profila baieztatuko luke. Konfiantzaren osagai guztiak hobetu dira eta adierazle orokorraren berreskuratze arinari laguntzen diote, baina ezkortasunaren barne. Eraitza horretan eragina izan dute ekonomia orokorrarekiko itxaropen negatiboak (-26,8 eta -20,9); horixe da, hain zuzen ere, Europako eta Espainiako etxeek okerren baloratu duten adierazlea. Hala eta guztiz ere, <sup>4</sup> prezioen (+13,2 eta +7,4) eta enpleguaren (+18,9 eta +11,7) bilakaerari buruzko itxaropenak baikortasunean finkatu dira, inflazioaren apaltzearekin eta lan-merkatuaren joera positiboarekin lerrotatuta. Europako etxeak baikorrak dira aurrezpen-gaitasunarekiko (+5,1), baina espainiarrak ez (-7,4).

## Etheen konfiantza eta aurrezpena

	2022	2023	2023			2024
			II	III	IV	I
<b>Etheen konfiantza<sup>1</sup> (-100;+100)</b>						
EB-27	-23,0	-18,5	-18,3	-17,3	-17,3	-15,7
Espainia	-26,5	-19,2	-19,1	-16,1	-19,1	-17,3
<b>Etheen aurrezpena<sup>2</sup>; Δ urte artekoa %</b>	<b>4,5</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,5</b>	<b>-1,0</b>	<b>-0,4</b>	<b>2,0</b>

1. Hileko datuen hiruhilekoko batezbesteko datua eta hiruhilekoko datuen urteko batezbesteko datua. 2. Gordailuak. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabetea itxierarena eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.  
Iturria: Eurostat eta Espainiako Bankua

Etheen aurrezpen-bilakaera hainbat faktorek baldintzatzen dute eta zeinu ezberdineko emaitzak ditu. Alde batetik, inflazioak gorantz birkalibratu du etxeetako ohiko prezioen estandarra, errenta eskuragarria gutxituz eta aurrezpen-gaitasuna kaltetuz. Beste alde batetik, zalantzak orokorrak izaten jarraitzen dutenez, erosketak eta inbertsioak egiteko erabakiak hartzea oztopatzen du. Eta azkenik, interes-tasen gorakada azkar aldatu da (beregala, 2021eko udazkenetik) kreditu-posizioetara (kostua handitzen da, etheen gastu-marjina kaltetuz) baina ez aurrezpen-posizioetara; azken horiek 2023ra arte oso erakargarriak ez ziren ordainsari-mailetan mantendu ziren. Besteak beste alderdi horien baldintza globalak azaltzen du gordailuen saldoaren hobekuntza <sup>5</sup> (+% 2,0), eta badirudi orain arte erregistratutako<sup>6</sup> joera itzuliko dela.

Azken finean, etheen aurrezpen-posizioek (gordailuei dagokienez) faktore horien guztien eraginaren nahasketa erakusten jarraitzen dute; aurreko horiek orekatu egiten dira beharrenean (aurrezteko gaitasuna), erakargarritasunaren (ordainsariak) eta kautelaren (aurreikusitako aurrezpena) artean. Modu horretan, 2024ko lehen hiruhilekoko gordailuen saldoa oraindik ere historikoki oso altuak diren mailetan mantentzen da (982.680 milioi euro), etheen finantza-kaudimena baieztatuz.

<sup>3</sup> Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeke etheen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketak handiak kontuan hartzen dira.

<sup>4</sup> Ez daude sartuta konfiantzaren adierazle laburtzailearen kalkuluan.

<sup>5</sup> Espainiako etxeetako Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuetako saldoa.

<sup>6</sup> Urte arteko hazkunde tasak +% 4,1, +% 5,6, +% 7,8, +% 4,7 eta +% 4,5ekoak dira 2018 eta 2022 artean.

## EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzak EAEko ekonomiarako egindako hazkunde ekonomikoko aurreikuspenek diote 2024 eta 2025ean hobetu egingo dela (+% 1,9 eta +% 2,1) 2023an erregistratutako dinamismoarekin alderatuta (+% 1,8), inflazioaren apaltzean eta politika monetarioaren malgutasunean babestuta. Hala ere, nolabaiteko kautela dago: *“2024ko euskal ekonomia lehen hiruhilekoko emaitzak baldintzatuko du;<sup>7</sup> horren gainean ohikoa baino zalantza gehiago dago. Edonola ere, aurreikusi da urteko bilakaera goranzkoa izango dela, bereziki urteko bigarren erdian. Aldi horretarako interes-tasa baxuagoak espero dira eta epe motzean jaisten jarraituko dute. Gainera, inflazioa txikiagoa izango da eta Europako ekonomia hobetu egingo da”*.

EAEko ekonomia % 1,9  
haziko da 2024an

Itzaropen horiek (2024) babesten dituzte etheen kontsumoaren hobekuntzak (+% 1,7) eta administrazio publikoenak (+% 2,2) eta, bereziki, inbertsioarenak (+% 2,6) —Europako funtsekin batera finantzatutako jarduketei lotutakoa—. Modu horretan, barne-eskariak euskal ekonomiaren hazkundera bultzatuko luke kanpo-saldoaren gelditzearen aurrean. Beste alde batetik, jarduera hobetu egingo da ekonomia-sektore guztietan. Azpimarratzekoa da zerbitzuen dinamismoa (+% 2,2) industria-jardueraren (+% 0,9) bultzada txikiagoaren aurrean, Europako eskariaren ahultasunak baldintzatuta.

## Euskal Autonomia Erkidegoa. Bilakaera eta egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	2023p	Egoera makroekonomikoa (Hiruhilekoko banaketa)				2024	2025
		24-I	24-II	24-III	24-IV		
<b>BPGd-a</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>1,7</b>	<b>2,0</b>	<b>2,2</b>	<b>1,9</b>	<b>2,1</b>
Etxeetako kontsumoa	1,5	1,3	1,6	2,0	2,0	1,7	1,8
Kontsumo publikoa	1,8	1,6	1,9	2,6	2,7	2,2	2,3
Inbertsioa (kapital finkoaren eraketa gordina)	2,1	2,0	2,5	2,7	3,1	2,6	2,5
Barne eskariaren ekarpena	1,7	1,6	1,9	2,3	2,4	2,1	2,1
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	-0,2	-0,2	-0,2	-0,2	-0,2	0,0
Lehen sektorea	-3,0	2,2	3,4	0,6	4,6	2,6	4,7
Industria eta energia	0,3	0,0	0,7	1,2	1,6	0,9	1,8
Eraikuntza	2,1	1,2	0,8	1,6	2,0	1,4	1,9
Zerbitzuak	2,4	2,0	2,1	2,3	2,4	2,2	2,2

Iturria: Eustat (2023p) eta Eusko Jaurlaritza Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2024ko martxoa).


Ekonomia-termometroak<sup>8</sup> baieztatu du euskal ekonomia pixka bat hazi dela, eta adierazle-balioa finkatu egin da (84,5 martxoan). Era berean, euskal enpresen itzaropenek diote jarduera egonkortu dela (49,8 bigarren hiruhilekoa), Euroguneko balioekin lerrotatuta (49,2) eta pixka bat hobetuz aurreko hiruhilekoko adierazlea (45,9; +3,9 puntu).

“Hazkunde leunaren”  
mailetan eta enpresa-  
itzaropenak hobetuz

<sup>7</sup> Horri lotuta, Eustaten lehen hiruhilekoko aurrerapenak kalkulatu du EAEko BPGd-a % 1,6 haziko dela urtetik urtera, eta bi hamarrenetan hobetuko dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenak (+% 1,4).


<sup>8</sup> Erreferentziatzko uñearen egoeraren adierazlea: hazkunde tinkoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta beherapena (50etik behera).

## EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila.

## ...EAEko enpresen aurreikuspenak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

Euskal etxeak 2024 hasieran ez dira hain ezkorak eta neutraltasun-maila inguruan daude (-5,3). Argi eta garbi hobetu dituzte aurreko hiruhilekoetako erregistroak, oso positiboa den enplegu-egoeran babestuta. Balioak ia-ia baikorrak dira aurrezpen-gaitasunari eta etxeke ekonomiaren itxaropenen hobekuntzari dagokienez; horiek, batera, konpentsatu egiten dute ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko konfiantza-falta iraunkorra, zeina argi eta garbi balio negatiboetan mantentzen den konfiantzaren adierazle globala baldintzatuz.

Hobekuntza hori euskal etxeetan islatzen da (baita ere)

## EAEko etxeen konfiantza

	2022	2023	II	2023	III	IV	2024
							I
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-11,0	-9,5	-6,7	-12,7	-9,0	-5,3	

Iturria: Euskal kontsumitzaileen konfiantza. Laboral Kutxa



## Prezioak eta inflazioa

Inflazioaren mozketeta-bidea gelditu egin da 2024 hasieran, urte arteko KPI orokorra hazi delako (+% 3,2 +% 3,2 eta +% 3,3, estatua, EAE eta Bizkaia), 2023 bukaeran erregistratutakoaren antzekoa. Hala, urrundu egiten da 2023ko ekainetik abuztura izandako erregistro txikiagoetatik (% 2 inguru) eta helburu den atalasetik (Europako Banku Zentrala). Hala eta guztiz ere, joera positiboa da,<sup>9</sup> prezioen hazkundea normalizatuagoa izango delako. Azpimarratzekoa da azpiko osagaian erregistratutako doikuntza, zeinaren hazkundea (+% 3,3 eta +% 3,4 estatuarentzat eta EAERentzat) adierazle orokorrek inlerokatzeko doan.

Inflazioaren hobekuntza moteldu egin da

Prezioen bilakaera baldintzatzen jarraitzen duten ondasun eta zerbitzuen taldeak (KPI orokorraren gainetik dauden hazkunderekin) alkoholik gabeko elikagaiak eta edariak (+% 4,3), alkoholdu edariak eta tabakoa (+% 4,0), jatetxeak eta hotelak (+% 5,5) eta aisialdia eta kultura (+% 3,8) dira. Alderantziz, hazkunde apalagoa izan du Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak taldeak (+% 1,5); negatiboa da bakarrik Elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak kontuan hartuta (-% 0,6). Emaizta horrek agerian uzten du energia-prezioen bilakaeran erregistratu den doikuntza garrantzitsua.

## KPIa Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza tasa, %

		KPI Orokorra			Azpiko KPIa <sup>1</sup>	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2023	urtarrila	5,9	5,6	5,6	7,5	7,3
	otsaila	6,0	5,8	5,9	7,6	7,4
	martxoa	3,3	3,3	3,2	7,5	7,4
	apirila	4,1	4,2	4,2	6,6	6,8
	maiatza	3,2	3,4	3,4	6,1	6,4
	ekaina	1,9	2,3	2,3	5,9	6,2
	uztaila	2,3	2,6	2,5	6,2	6,4
	abuztua	2,6	2,7	2,8	6,1	6,3
	iraila	3,5	3,6	3,7	5,8	6,1
	urria	3,5	3,5	3,5	5,2	5,4
	azaroa	3,2	3,4	3,5	4,5	4,8
	abendua	3,1	3,1	3,2	3,8	3,9
2024	urtarrila	3,4	3,5	3,6	3,6	3,8
	otsaila	2,8	3,1	3,3	3,5	3,9
	<b>martxoa</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>	<b>3,3</b>	<b>3,3</b>	<b>3,4</b>

1. Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri. Iturria: EIN

Inguruko ekonomiek inflazioaren apaltze-bidea partekatzen dute. Euroguneko batez bestekoa (+% 2,4) pixkanaka hurbiltzen ari da Europako Banku Zentralaren helburu-atalasera (% 2) eta erregistro hori baino txikiagoa da Europako zenbait herrialdetan, besteak beste Italian (+% 1,2) edo Danimarkan (+% 0,8). Halaber, azpiko inflazioan erregistratutako doikuntza nabarmen da, KPI Orokorraren hazkunderetikiko arrakala moztuz. Horrek argi uzten du gorakada inflazionista xurgatu dela eta hazkunde-mailak egonkorragoak izango direla berriz ere.

Baina pixkanaka helburu-atalasera (% 2) hurbilduz

<sup>9</sup> Elaboratu gabeko elikagaien eta energia-produktuen efektua kenduta. Ez dago Bizkairako eskuragarri.

Hala, Europako Banku Zentralak ohartarazi duenez,<sup>10</sup> "Gobernu Kontseiluak inflazio-itxaropenen, azpiko inflazioaren dinamikaren eta politika monetarioaren transmisioaren intentsitatearen inguruan egindako ebaluazio eguneratuak konfiantza indartuko balu pentsatzeko inflazioa helburua lortzerantz doala modu sostengatuan (% 2 epe ertainera), egokia litzateke egungo politika monetarioaren mugaketa-maila gutxitzea". Modu horretan, posible dirudi<sup>11</sup> erreferentziazko interes-tasak murriztuko direla<sup>12</sup>, inflazioaren bilakaera ikusirik (% 2ko helburua lortzea) eta, nagusiki, ekonomia-jarduera sustatzeko bere eginkizuna berreskuratuz, Europako ekonomia handietan egiaz ahul dagoena.


Interes-tasen murrizketa posible baten iragarpena justifikatuz (Europako Banku Zentrala, ekainean)

## EB-27ko KPI harmonizatua eta Europako ekonomiak. 2024ko martxo

	urte arteko tasa		Diferentzia /aben.-23 (pp)	
	KPI Orokorra <sup>1</sup>	Azpiko KPIa <sup>2</sup>	KPI Orokorra	Azpiko KPI
<b>Eurogunea</b>	<b>2,4</b>	<b>3,1</b>	<b>-0,5</b>	<b>-0,8</b>
Alemania	2,3	3,2	-1,5	-0,5
Frantzia	2,4	2,6	-1,7	-1,2
Espania	3,3	3,4	0,0	-0,6
Italia	1,2	2,4	0,7	-0,8
Herbehereak	3,1	3,1	2,1	-0,6
Danimarka	0,8	1,5	0,4	-1,0
Suedia	2,3	3,5	0,4	-1,5
<b>EB-27</b>	<b>2,6</b>	<b>3,3</b>	<b>-0,8</b>	<b>-1,0</b>

1. HICP - KPI Orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPI  
Iturria: Eurostat

## Euribor, 12 hilabete (%)



Iturria: Espainiako Bankua

<sup>10</sup> Azken bilera 2024ko apirilaren 11n egin zen (Politika monetarioko erabakiak).

<sup>11</sup> Politika monetarioen inguruko hurrengo bilera 2024ko ekainaren 6an izango da.

<sup>12</sup> % 4,50en (Europako Banku Zentrala, aldaketarik gabe 2023ko irailaren 20tik) eta % 5,25en (Fed, 2023ko uztailaren 27tik) kokatzen dira.


## EAEko BPGd-a

2024ko lehen hiruhilekoan (aurrerapen-datua<sup>13</sup>) dio EAEko BPGd-a % 0,5 eta % 1,6 hazi zela hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan. Halaber, esan du enplegua (lanpostuak, LOB) % 0,5 eta % 2,0 hazi zela hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan.

EAEko ekonomia % 1,6 hazi zen lehen hiruhilekoan (aurrerapena)

Adierazle bietako bilakaera aurreratua lerrokatuta dago 2023ko bigarren seiuhilekoan erregistratutako gorakada-joerarekin<sup>14</sup>, Espainiako hazkunde ekonomikoaren aurrerapenarekin (+% 0,7 hiruhileko arteko tasan), eta bat etorritz<sup>15</sup> 2024rako ekonomia hazkundearen eta enpleguaren itxaropenekin, zehazki, % 1,9 eta % 1,6.

## EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro eta egutegi ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean, 2015eko oinarrian.

Egiaz, EAEko ekonomia<sup>16</sup> % 1,8 hazi zen 2023an; emaitza positiboa da egoera geopolitiko zalantzakoa, interes-tasen gorakadaren eragin sostengatua eta Europako ekonomia handien ahultasuna ikusirik.

2023an eskuratutako emaitza finkatuz (+% 1,8)

Aurreko guztiarekin, erregistratutako hazkundera 2021-2022 biurtekokoa baino txikiagoa da (balio oso adierazgarrietan, 2020ko pandemiaren inpaktua berreskuratu izan behar baitzuten), baina aurreko etapan (2019) erregistratutako balioetara hurbiltzen da, ekonomia heldu eta irmo batekin bat etorritz, hein handi batean, zerbitzuen sektorea dela-eta.

Horrekin lotuta, azpimarratu beharra dago ekonomia-jardueraren berreskurapena babesten dutela hirugarren sektorearen bultzadak (+% 2,4) eta eraikuntzarenak (+% 2,1), industriaren egonkortasunaren (+% 0,3) eta lehen mailako sektorearen murrizketaren (-% 3,0) aurrean.

<sup>13</sup> 2024ko apirilaren 23an argitaratua. Hiruhileko Kontu Ekonomikoen emaitzak ekainaren 7an argitaratuko dira.

<sup>14</sup> INE, 2024ko apirilak 30.

<sup>15</sup> Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenekin bat etorritz.

<sup>16</sup> Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2023ko laugarren hiruhilekokoak), urteko balantzea osatzen dutenak.

## EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	2021	2022	2023	2023			
				I	II	III	IV
<b>BPGd-a</b>	<b>6,0</b>	<b>5,4</b>	<b>1,8</b>	<b>2,4</b>	<b>1,5</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>
Lehen sektorea	15,1	-8,7	-3,0	1,3	-5,9	-4,4	-2,6
Industria eta energia	5,3	4,7	0,3	1,2	-0,7	0,5	0,1
Eraikuntza	1,0	6,7	2,1	0,9	3,6	2,5	1,5
Zerbitzuak	6,6	5,9	2,4	3,0	2,2	2,1	2,3
<b>LOB Enplegua</b>	<b>2,7</b>	<b>2,8</b>	<b>1,7</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>1,7</b>	<b>1,9</b>

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak. BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2015eko oinarrian

Enplegua (lanaldi osoaren baliokidetzan) % 1,7 hazi zen; horrek esan nahi du 16.095 lanpostu garbi sortu zirela 2022rekin alderatuz, guztira 982.055 LOB enplegu. Zifra hori pandemia aurrekoa baino handiagoa da (974.811, 2019an), baina ez da iristen <sup>17</sup> 2008ko gehieneko baliora (998.395). Hala eta guztiz ere, emaitza hori aldatu egiten da jarduera-sektoreen arabera; izan ere, zerbitzuek 2023an LOB enpleguen maila handiena lortu zuten (711.300) eta industriak (eta bereziki, eraikuntza-jarduera) enplegu-zifra hoberenetatik urrunduta jarraitzen du askotariko arrazoiengatik <sup>18</sup> (-% 20,7 eta -% 42,5, 2007rekin alderatuta<sup>19</sup>).

Enpleguak 16.000 LOB lanpostu irabazi zituen (+% 1,7)

<sup>17</sup> Afiliazioak ez bezala, 2023an enplegu-zifra altuena erregistratu zuena. Halaber, lanpostu guztien inguruko informazioak (2022ra arte dago eskuragarri) dio urte horretan jada gaintu zirela 2008ko erregistroak. Horrenbestez, 2023ak balio horiek are gehiago hobetuko lituzke. Hala, lanaldi osoko lanpostuen baliokidetzan eskuratutako emaitzaren diferentziaren arrazoa da sortutako enpleguaren zati handi bat lanaldi partzialekoa izan dela.

<sup>18</sup> Industria-enpleguak inbertsioaren eta berrikuntzaren efektua xurgatzen du; horrek esan nahi du produktibitatea hobetzen dela eta halaber, enplegu-bolumena txikiagoa da. Eraikuntza-jardueraren egoera oso ezberdina da; lan-faktorearen osagaia oso garrantzitsua da, baina ibilbide horretan ez da egon azpiegiturako obra handirik (aurreko hamarkadetan gertatu zen bezala), eta ez da bizitegi-segmentua berreskuratu ezta ere. Horrenbestez, 2008ko krisiaren ondoren erregistratutako jardueraren doikuntza eta enplegua oso garrantzitsua izan da eta ia-ia gaur eguneraino iraun du. Jarduera hori berreskuratzeko eronketako bat (kontuan hartuta oso zaila dela 2007ko maietara itzultzea) da, hain zuzen ere, bizitegi-sektorea berriro aktibatzea eta, zehazki, etxebizitza berrien eraikuntza. Horrek, beste batzuen artean, bi mugari aurre egin behar die, alde batetik lurzoru-falta, eta beste batetik (beste maila eta gaintze-aukera batzuekin) profil profesionalak faltatzea.

<sup>19</sup> Enplegu osoaren zifrarik onena 2008an erregistratu zen zerbitzuen sektoreari esker, baina industriak eta eraikuntzak 2007an maila horiek lortu zituzten eta lehen mailako sektorea enplegua galtzen ari da 1997tik aurrera.

## LAN-MERKATUA

### Afiliatuak


Lehen hiruhilekoan (martxoa) Bilbon Gizarte Segurantzara afiliatuta zeuden 191.703 pertsona, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago (-% 0,7 eta 1.303 afiliazio gutxiago), baina urtetik urterako hazkunde-profila mantendu egiten da (+% 3,0 eta 5.554 afiliazio gehiago 2023ko martxoarekin alderatuta). Egiaz, hiribilduko afiliazioan erregistratutako hirugarren zifrarik handiena da, bakarrik 2023ko abenduko (193.006) eta 2024ko otsaileko (192.329) zifren atzetik; modu horretan, hiribilduan sei hilabetez jarraian 190.000 afiliazio baino gehiago daude.

191.703 daude afiliatuta Gizarte Segurantzara...

Joera on horren arrazoia Araubide Orokorren dinamismoa izan da (+% 3,6 urte arteko tasan; +5.610 afiliatu), 162.485 pertsonekin. Halaber, gehitu egin da Etxeko Langileen araubideari eta beste batzuei lotutako afiliazioa (+% 0,4 eta +% 4,2), eta kontrara, Langile autonomoen araubide bereziak behera egin du (-% 0,5).

...azpimarratzekoa da soldatapeko enpleguaren dinamismoa, enplegu autonomoaren atzerapena konpentsatzen duena

### Afiliatuak



Iturria: Gizarte Segurantza

### Populazio afiliatua, araubideen arabera

	2024.03	Δ % hiruhileko artekoa (23ko abe/)	Δ % urte artekoa (23ko martxoa/)
<b>GUZTIRA</b>	<b>191.703</b>	<b>-0,7</b>	<b>3,0</b>
Araubide orokorra	162.485	-0,8	3,6
Autonomoak	22.010	0,1	-0,5
Etxeko langileak	6.484	0,0	0,4
Beste batzuk	724	-1,5	4,2

Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliazioaren sektore-bilakaerak berresten du afiliazioaren hobekuntza-joera mantentzen ari dela (urte arteko tasa) zerbitzuetan (+% 3,1) eta industrian eta energian (+% 3,7), eta horrek konpentsatu egiten ditu lehen mailako sektorearen (-% 8,1) eta eraikuntzaren (-% 0,3) jaitsierak.

...eta zerbitzuen enplegua gehitu da

Zerbitzu-jardueraren adarretan erregistratutako bilakaerak erakusten du bakarrik bik galdu dutela enplegua azken urtean, hain zuzen ere, merkataritzak (-% 1,2) eta beste zerbitzu batzuek (-% 0,6). Gainerako jardueren afiliazioa hobetu egin da. Hiribilduko afiliazio orokorrean duten pisuarengatik azpimarratzekoak dira ostalaritza (+% 8,7), garraioa eta biltegiatzeak (+% 3,8), informazioa eta komunikazioak (+% 6,1), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 3,6) edo administrazio-jarduerak eta osagarriak (+% 4,0), beste batzuen artean.

## Afiliatuak, jarduera-adarraren arabera

	2024.03	Δ % hiruhileko artekoa (23ko abe/)	Δ % urte artekoa (23ko martxoa/)
<b>Lehen sektorea</b>	<b>249</b>	<b>-0,8</b>	<b>-8,1</b>
<b>Industria eta energia</b>	<b>8.834</b>	<b>0,5</b>	<b>3,7</b>
Industria	5.109	2,4	3,7
Energia	1.139	-0,7	4,9
Hondakinak eta ura	2.586	-2,6	3,3
<b>Eraikuntza</b>	<b>9.224</b>	<b>-1,8</b>	<b>-0,3</b>
Eraikuntza	3.228	1,0	4,4
Eraikuntza-laguntzailea	5.996	-3,2	-2,7
<b>Zerbitzuak</b>	<b>173.382</b>	<b>-0,7</b>	<b>3,1</b>
Merkataritza	18.871	-4,1	-1,2
Garraioa eta biltegiatzea	9.305	-1,5	3,8
Ostalaritza	10.936	0,4	8,7
Ostatua	1.851	2,8	9,5
Informazioa eta komunikazioak	10.654	1,6	6,1
Finantza eta aseguruak	7.365	2,9	3,1
Higiezin jarduerak	1.217	-0,6	0,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak.	15.013	0,5	3,6
Administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	17.923	-0,8	4,0
Administrazio publikoa	12.453	0,1	2,1
Hezkuntza	25.726	1,3	3,6
Osasuna	13.890	-5,3	0,7
Gizarte-zerbitzuak	10.248	-1,4	6,6
Aisialdia eta kulturakoak	4.333	-1,3	5,5
Etxeko langileak	6.947	0,1	0,4
Beste zerbitzu batzuk	6.650	0,1	-0,6

Oharra: Guztira arteko desberdintasuna sektore-esleipena zehaztuta ez dituzten afiliazioei dagokie.  
Iturria: Gizarte Segurantza

Hiruhileko arteko bilakaerak enpleguaren koiuntura eta urtaro-bilakaera erakusten du; aurrekoa, urteko lehen hiruhilekoan hiribilduaren afiliatorako negatiboa izan da lau sektore handitatik hirutan. Industria eta energia salbuespena izan dira (+% 0,5). Halaber, jarduera-adarren arabera egindako analisiak berretsi du zenbait jarduerak hiruhileko arteko joera txarragoa izan dutela, hala nola merkataritzak (-% 4,1), garraioak eta biltegiatzeak (-% 1,5),

Hiruhileko arteko bilakaera negatiboa da (-% 0,8), zerbitzuek baldintzatuta (-% 0,7)

osasungintzak (-% 5,3), gizarte-zerbitzuak (-% 1,4), aisialdikoak eta kulturalak (-% 1,3), administrazio-jarduerak eta osagarriak (-% 0,8) edo higiezinak (-% 0,6). Azken finean, itxaron egin behar dugu ikusteko zein bilakaera duten urtean zehar, modu horretan, baieztatzeko ea enpleguaren dinamismoak hozten jarraitzen duen edo sinpleki hiruhileko arteko atzeraemangunaren arrazoi nagusia urtarokotasuna den.

## Benchmarkina Afiliatuak

	2024.03	Δ % hiruhileko artekoa (23ko abe/)	Δ % urte artekoa (/23ko martxoa)
Madril	2.312.902	-0,1	4,2
Bartzelona	1.218.962	1,1	2,2
Valentzia	448.974	0,8	5,0
Sevilla	403.154	0,6	3,0
Zaragoza	316.181	0,3	3,1
<b>G-5aren batez bestekoa</b>	--	<b>0,5</b>	<b>3,5</b>
<b>BILBO</b>	<b>191.703</b>	<b>-0,7</b>	<b>3,0</b>
Vitoria-Gasteiz	127.554	-0,6	1,3
Donostia-San Sebastián	125.163	-0,1	2,4
Pamplona-Iruñea	114.871	0,6	2,3
<b>G-3ren batez bestekoa</b>	--	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>
<b>G-9ren batez bestekoa</b>	--	<b>0,2</b>	<b>2,9</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliazio-hobekuntzaren joera (urte arteko tasan) estatuko erreferentziazko hiriburu nagusiek partekatzen dute. Azpimarratzekoak dira Valentiako (+% 5,0) eta Madrilgo (+% 4,2) hazkundeak eta ondoren Zaragoza<sup>20</sup> (+% 3,1), Sevilla (+% 3,0) eta Bartzelona (+% 2,2) daude. Eraitza gisa, estatuko hiriburu multzoak (G-5en batez bestekoa) % 3,5eko igoera izan du afiliazioan.

Bilbok erreferentziazko hiriburuekin partekatzen du afiliazio-hobekuntzaren joera

Era berean, euskal hiriburuek enplegurako une ona indartzen dute, baina estatukoek baino neurri txikiagoan: Donostian gertatu da afiliazioaren handitserik handiena (+% 2,4), gero Iruñean (+% 2,3) eta azkenik Gasteizen (+% 1,3). Aurreko guztiarekin, euskal hiriburu batez bestekoa (G-3) afiliazioa % 2,0 hazi da.

<sup>20</sup> 2023ko urritik aurrera Gizarte Segurantzak ez du jasotzen Zaragozako afiliazioaren zifra zehatza (dio balio jakin bat gainditzen duela), lkatz-meataritzaren araubide bereziari atxikitako afiliazioa 5 baino txikiagoa baita (estatistika sekretua). Afiliazioaren zifra osoa kalkulatzeko 4 afiliazio esleitzen zaizkio Meataritzaren araubide bereziari.

## Kontratuak<sup>21</sup>

2024ko lehen hiruhilekoan jaitsi egin da Bilboko egoiliarren kontratazioa. Zehazki, urtarriletik martxora 26.718 lan-kontratu berri formalizatu ziren, hau da, % 10,3ko jaitsiera gertatu zen 2023ko azken hiruhilekoarekin alderatuta eta 3.052 kontratu gutxiago sinatu ziren.

Murrizketa hori emakumeen (-% 9,7) eta gizonen (-% 10,8) eta adin-taldeen (-% 13,9, -% 8,5, -% 8,5 eta -% 10,1, gazteenen taldetik zaharreneen taldera) kontratazioetan partekatu zen. Halaber, jaitsi egin dira baita ere kontratazio mugagabeak eta aldi baterakoak (-% 9,6 eta -% 10,5, hurrenez hurren), eta lau jarduera-sektore handien artean hirutan gauza bera gertatu da; eraikuntza-sektorea izan da kontratazioa gehitu duen bakarra (+% 5,5).

Hala eta guztiz ere, kontratazioaren urte arteko bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du eta hobekuntza-joera berresten da. Zehazki, 1.895 kontratu berri gehiago egin ziren (+% 7,6), baina emakumeen kontratazioak (+% 8,9) gizonenak baino dinamismo handiagoa izan zuen (+% 6,3). Dinamismo hori 16-24 urte artekoen (+% 29,3), 25-34 urtekoen (+% 5,1) eta 45 urte eta gehiagokoan (+% 6,6), artean gertatu da, eta 35-44 urtekoen taldea izan da kontratazio gutxiago izan dituen bakarra (-% 5,8). Azkenik, zerbitzuen sektorea erabakigarria da multzoan duen pisuarengatik; izan ere, lehen hiruhilekoan erregistratutako kontratazio berri guztien % 87,2 egin ziren bertan. Hala, urte arteko emaitza onak (+% 10,9) konpentsatu egiten ditu lehenengo sektorearen (-% 12,6), industria eta energiaren (-% 11,7) eta eraikuntzaren (-% 7,1) jaitsierak.

Urteko lehen hiruhilekoan kontratazioak gutxitu egin dira (hiruhilekotik hiruhilekora)....

Baina urtetik urtera hobetzen jarraitzen dute

## Kontratuak

	2023.IV	2024.I.	Δ % hiruhileko artekoa (23 IV hiruhileko gainean)	Δ % urte artekoa (23ko I. hiruhileko gainean)
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.770</b>	<b>26.718</b>	<b>-10,3</b>	<b>7,6</b>
Emakumeak	15.130	13.060	-13,7	4,1
Gizonak	14.640	13.658	-6,7	11,2
16-24 urte bitartekoak	7.132	6.138	-13,9	29,3
25-34 urte bitartekoak	8.396	7.679	-8,5	5,1
35-44 urte bitartekoak	5.861	5.364	-8,5	-5,8
45 urte eta gehiagokoak	8.381	7.537	-10,1	6,6
Mugagabeak	8.793	7.945	-9,6	-6,4
Aldi baterako	20.977	18.766	-10,5	14,9
Lehen sektorea	573	354	-38,2	-12,6
Industria eta energia	2.098	1.941	-7,5	-11,7
Eraikuntza	1.071	1.130	5,5	-7,1
Zerbitzuak	26.028	23.293	-10,5	10,9

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.  
Iturria: SEPE

<sup>21</sup> Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako lan-erreforma indarrean sartzeak kontratazioaren esparru juridikoa aldatzea ekarri du, denbora modalitatea mugatuz. Aldaketa horren ondorioek aurreko egoerarekin alderatzea eragozten dute, erregistratutako kontratuen bolumen osoak eta horien osaera (mugagabea eta aldi baterakoa) ez baitira alderagarriak. Horrez gain, pixkanaka esparru berri horrek kontratazioaren bolumen osoak murriztea eragingo du.



## Erregistratutako langabezia


Bilbon 21.963 pertsona zeuden langabezian erregistratuta martxoan. Horrek esan nahi du orain dela urtebete baino (21.302 langabe) % 3,1 eta 661 langabe gehiago daudela. Egiaz, 2021eko martxotik langabezian erregistratutako lehen hazkundea da, hilabete horretatik aurrera joera etengabe jaistearna izan baitzen, pandemiaren ondorioz erregistratutako gorakadaren ondoren. Pandemiak 2020ko martxotik 2021eko martxora eragin zuen nagusiki (24.494 eta 25.198 langabe hurrenez hurren) eta kopuru handiena 2020ko abuztuan erregistratu zen (27.852 langabe).

Erregistratutako langabezia lehen aldiz gehitu da 2021eko martxotik

Halaber, hiruhileko arteko terminoetan eta abenduko zifrarekin alderatuta, hiribilduan erregistratutako langabeziak gora egin zuen (+% 5,2; 1.077 langabe gehiago), eta emakumeen (+% 6,0 eta +696 pertsona) eta gizonen (+% 4,1 eta +381 pertsona) zifrak antzekoak izan ziren.

Azken finean, Bilbon erregistratutako langabeziaren bilakaerak pandemiaren ondorioen (erregistratutako langabeziaren gorakada) gainditzea xurgatu zuen, eta hiribilduan 2019ra arte erregistratzen ari zen enpleguaren hobekuntza-joera berreskuratu zen (urte horretan erregistratutako balioak baino txikiagoetan). Une honetan, ikusteke dago ea inflexio-puntua (joera-aldaketa) edo koiuntura-efektua ote den.

## Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Adin-talde araberako analisiak erakusten du erregistratutako langabeziaren gorakada adin-talde guztietan gertatu dela, baina hazkundeak txikiagoak izan dira (hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan) adinak gora egin ahala. Hala, langabezia % 14,1 eta % 12,6 handitu zen hiruhilekotik hiruhilekora eta urtetik urtera 16-24 urte artekoen artean, % 8,8 eta % 5,5 hazi zen 25-34 urtekoen artean, % 3,7 eta % 1,2 35-44 urtekoen artean eta % 3,3 eta % 1,7 45 urte eta gehiagokoen kolektiboan.

Gainera, eta langabezian daramaten denbora kontuan hartuta, egoera antzekoa da. Langabezian hiru urte baino gehiago daramatzatzenen segmentua da atzera egin duen bakarra <sup>22</sup> (-% 0,7 eta -% 6,9 hiruhileko eta urte artean), eta gainerako lau kolektiboetan hazkundeak egon dira.

Langabezian hiru urte daramatenen kolektiboak bakarrik egin du behera

Azkenik, prestaziorik jasotzen ez duten langabeen kopurua handitu da (+% 5,2 eta +% 4,5 hiruhileko eta urte artean) eta prestazioak jasotzen dituztenen kolektiboak bilakaera ezberdina du; hiruhileko artean hazi egin da (+% 5,0), baina urte artean pixka bat gutxitu da (-% 0,4). Edonola ere, langabezian dauden hamar pertsonatik zazpi baino zerbait gehiagok ez du prestaziorik kobratzen arrazoi horrengatik.

## Erregistratutako langabezia

	2024.03	Δ % hiruhileko artekoa (23ko abe/)	Δ % urte artekoa (/23ko martxo)
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.963</b>	<b>5,2</b>	<b>3,1</b>
Emakumeak	12.327	6,0	3,1
Gizonak	9.636	4,1	3,1
16-24 urte bitartekoak	1.985	14,1	12,6
25-34 urte bitartekoak	3.581	8,8	5,5
35-44 urte bitartekoak	4.218	3,7	1,2
45 urte eta gehiagokoak	12.179	3,3	1,7
6 hilabetera arte	7.478	11,6	4,4
6 hilabete eta urte 1 bitartekoak	3.021	6,2	13,3
Urte 1 eta 2 bitartean	3.248	1,6	9,6
2 eta 3 urte bitartean	1.679	7,3	13,5
3 urtetik gora	6.537	-0,7	-6,9
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.825	5,2	4,5
Langabezia-prestazioa kobratzen du	6.138	5,0	-0,4

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Hala eta guztiz ere, erreferentzia-hiriburuek bilakaera ezberdina izan dute 2024ko lehen hiruhilekoan erregistratutako langabeziaren bilakaerarekin alderatuta. Alde batetik, eta abenduko langabezia-zifrekin konparatuta, bakarrik Valentzia izan da martxo bukaeran langabe gutxiago zituena (-% 0,3), estatuko gainerako hirietan tamaina ezberdineko hazkundeak gertatu zirelarik. Hala eta guztiz ere, urte arteko zifretan dinamismo handiagoa gertatu da eta Bartzelona izan da langabeziak gora egin duen hiriburu bakarra (+% 3,2). Multzoan, estatuko hiriburuek (G-5 batez bestekoa) % 2,3ko hiruhileko arteko hazkundera izan dute eta urte artean, aldiz, jaitsiera (-% 2,3).

Erreferentziako hiriburuetan, langabeziak bilakaera desberdina izan du

Halaber, eta euskal hiriburuei dagokienez, Gasteizen langabe gutxiago daude 2023 bukaeran baino (-% 1,1), eta Donostian eta Iruñean gora egin dute (+% 5,7 eta +% 2,6, hurrenez hurren). Urte arteko zifretan, Donostia izan da langabeak gehitu dituen bakarra (+% 3,8).

<sup>22</sup> Erregistratutako langabeziatik atera dira erretiroa hartu dutelako?

## Benchmarkina Erregistratutako langabezia

	2024.03	Δ % hiruhileko artekoa (23ko abe/)	Δ % urte artekoa (/23ko martxo)
Madril	146.168	4,5	-2,1
Bartzelona	65.156	2,6	3,2
Valentzia	46.784	-0,3	-4,2
Sevilla	61.149	1,2	-3,3
Zaragoza	31.160	3,7	-5,2
<b>G-5aren batez bestekoa</b>	--	<b>2,3</b>	<b>-2,3</b>
<b>BILBO</b>	<b>21.963</b>	<b>5,2</b>	<b>3,1</b>
Vitoria-Gasteiz	14.718	-1,1	-3,1
Donostia-San Sebastián	7.003	5,7	3,8
Pamplona-Iruñea	10.340	2,6	-4,1
<b>G-3ren batez bestekoa</b>	--	<b>2,4</b>	<b>-1,1</b>
<b>G-9ren batez bestekoa</b>	--	<b>2,7</b>	<b>-1,3</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: SEPE

## Biztanleria aktiboa

2024ko lehen hiruhilekoko<sup>23</sup> Biztanleria aktiboaren inkestaren datuen emaitzek kalkulatu dute hiribilduko egoiliarren artean biztanleria aktiboa 162,1 mila pertsonakoa zela, landunen (145,4 mila pertsona) eta langabeen (16,7 mila pertsona) artean banatuta. Emaiza horiek 2023ko lehen hiru hiruhilekoetan kalkulatuakoen antzekoak dira eta laugarren lauhilekoaren "anormaltasunetik" urruntzen dira.

Erregistratutako bilakaerak<sup>24</sup> dio bi aldagaiak jaitsi egin direla urte artean (-% 1,8 eta -% 2,3, landunak eta langabeak); emaitza paradoxikoa da hiribilduko afiliazioaren eta langabeziaren bilakaerarekin konparatuta (+% 3,0 eta +% 3,1, hurrenez hurren).

Hiribilduko enplegu-adierazleek<sup>25</sup> % 50,1eko enplegu-tasa kalkulatu dute. Ezberdintasun handiak daude emakume eta gizonen artean (% 45,8 eta % 54,9, hurrenez hurren), eta<sup>26</sup> langabezia-tasa % 10,3koa da. Adierazle hori % 10etik beherakoa izan zen aurreko hiru hiruhilekoetan (% 7,8, % 7,2 eta % 8,1, 2023ko bigarren hiruhilekotik laugarrenera), baina azken urteetako lehen hiruhilekoetako emaitzarik onena da eta hurrengo hiruhilekoetako emaitzekin finkatu egingo da.

Biztanleria landunak behera egin du eta langabeak gora (urtetik urtera)


<sup>23</sup> Biztanleria-oinarriaren aldaketa barne hartzen du; hau da, 2021eko erroldako biztanleria- eta etxebizitza-serieak sartu eta eguneratzea (orain arte erabilitakoak ordezkatzuz, hau da, 2011ko erroldakoak). 2021etik aurrerako datu-seriea berrikusi da.

<sup>24</sup> Emaitzak bat datoz argi eta garbi aurreko urteko eta hiruhileko erregistroekiko txikiagoa den (-12.200 eta -10.300 pertsona hurrenez hurren) biztanleria-oinarriarekin (16 urte eta gehiagoko 290,4 mila pertsona), 300 mila pertsona inguruko balioekin.

<sup>25</sup> Biztanleria landunaren ehunekoa 16 urteko eta gehiagoko biztanleria osoarekiko.

<sup>26</sup> Biztanleria langabearen ehunekoa biztanleria aktiboarekiko.

## Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN

## Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua eta adierazleak (enplegu eta langabezia tasa)

	Δ %					
	2023.II	2023.III	2023.IV	2024.I.	Hiruhileko artean	Urte artean
<b>Biztanleria aktiboa (milakotan)</b>	<b>162,5</b>	<b>162,6</b>	<b>174,4</b>	<b>162,1</b>	<b>-7,1</b>	<b>-1,8</b>
Biztanleria landuna (milakotan)	149,9	150,9	160,3	145,4	-9,3	-1,8
Nekazaritza	0,5	0,0	0,5	0,5	0,0	--
Industria	16,6	13,5	16,4	16,0	-2,4	8,8
Eraikuntza	8,0	6,4	8,0	7,2	-10,0	-28,7
Zerbitzuak	124,7	131,0	135,4	121,7	-10,1	-1,1
Langabeak (milakotan)	12,7	11,7	14,0	16,7	19,3	-2,3
<b>Enplegu-tasa (%)</b>	<b>50,5</b>	<b>50,7</b>	<b>53,3</b>	<b>50,1</b>	<b>-3,2</b>	<b>1,2</b>
Emakumeak	45,5	45,6	48,6	45,8	-2,8	2,8
Gizonak	55,9	56,3	58,9	54,9	-4,1	-0,3
<b>Langabezia tasa (%)</b>	<b>7,8</b>	<b>7,2</b>	<b>8,1</b>	<b>10,3</b>	<b>2,2</b>	<b>-0,1</b>
Emakumeak	6,2	4,4	9,5	8,6	-0,9	-0,7
Gizonak	9,2	9,5	6,6	11,9	5,3	0,6

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntutan.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN

## MERKATARITZA

Bizkaiko merkataritza-sektoreak barne hartzen ditu txikizkako eta handizkako merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa segmentuak. Termino arruntetan, sektorearen salmentek (prezio arruntak) urte hasiera oso positiboa izan zuten (+% 7,3), baina ia ez zuen konpentsatu hurrengo hiruhilekoetan erregistratutako atzerapen jarraitua (-% 3,8, -% 0,5 eta -% 0,9 hurrenez hurren), eta azken balantzea positiboa izan zen (+% 0,4).

Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentak gutxitu egin ziren 2023an (-% 1,8, prezio konstanteetan)

Baina inflazioaren efektua (prezio konstanteak) kenduta, salmenten bilakaerak baieztatzen du jardueraren dinamismoa galdu dela (benetako hazkundearen adierazlea) eta urteko profila antzekoa da; hasiera positiboak (+% 1,2) ez du konpentsatu ondorengo atzerapena, eta urtea ixtean balantze orokorra negatiboa izan zen (-% 1,8).

Sektore-emaizta<sup>27</sup> horren arrazoia handizkako merkataritzaren joera okerragoa izan da. Horrek emaitza orokorrari eragin dio, ez baita konpentsatu txikizkako merkataritzaren hobekuntzarekin eta nagusiki, ibilgailuen salmenta eta konponketaren hobekuntzarekin. Sektore-bilakaeraren bereizketa hori EAEn gertatu da eta Bizkaiaarentzat adierazgarria da. Hala, nahiz eta jarduera moteldu den (prezio konstanteetan), egia dena da sektoreak hiruhilekoz hiruhileko enplegua gehitzeko profil jarraitua mantendu duela, eta lurraldeko urteko balantzea positiboa da (+% 1,4).

Hala, Bizkaiko txikizkako merkataritzaren salmentek gorakada handia izan zuten 2023 bukaeran (+% 6,7 eta +% 2,4 prezio arruntetan eta konstanteetan). Bi segmentuen dinamismoaren emaitza izan da, bai elikaduran (+% 9,6 eta +% 2,3 prezio arruntetan eta konstanteetan) bai gainerako produktuetan ere (+% 4,3 eta +% 2,5).

Txikizkako merkataritzaren balantzea positiboa da (+% 2,4 prezio konstanteetan)

### Merkataritza

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2023.II	2023.III	2023.IV	2023.II	2023.III	2023.IV
<b>Merkataritza-salmentak</b>	-3,8	-0,5	-0,9	-3,7	-2,2	-2,5
<b>Landunen indizea</b>	1,4	1,4	2,2	--	--	--
Txikizkako merkataritzako salmentak*	6,0	6,9	3,8	1,6	2,9	0,8
Elikagaiak	10,3	10,4	6,0	2,7	3,4	0,9
Gainerako produktuak	2,5	4,0	1,9	0,7	2,5	0,7

\*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegiaren eta langileen adierazleen ondorioekin zuzendutakoak eta urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. Oinarria: 2015.

Iturria: Eustat

<sup>27</sup> Eustatek jada ez du lurralde historikoen informazio berezia hiru jarduera-sektoretan argitaratzen (handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa), eta horrenbestez, ez dugu Bizkaiko datu bereizirik. EAeko datuek diote sektore-salmentak (prezio arruntak) % 0,7 hazi direla 2023ko laugarren hiruhilekoan (urte artean), ibilgailuen salmenta eta konponketak (+% 13,7) eta txikizkako merkataritzak (+% 4,1) lagunduta eta handizkako merkataritzako salmenta-murrizketen (-% 3,3) aurrean. Sektorearen benetako hazkundera negatiboa da (-% 1,8) handizkako merkataritzaren jaitsieraren ondorioz (-% 5,2), ez baita konpentsatu ibilgailuen salmenta eta konponketaren (+% 10,2) eta txikizkako merkataritzaren (+% 1,0) hobekuntzarekin.

Urteko lehen hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handien salmentek hobekuntza-erritmoa mantendu dute (+% 4,2 urte artean eta prezio arruntetan), eta horrela itxi dute urtea (+% 4,7, laugarren hiruhilekoa). Elikagaien segmentuaren joera onaren emaitza da (+% 7,5), gainerako produktuen jaitsiera konpentsatzen duena (-% 1,6).

Merkataritza-gune handietako salmentek zifra negatiboak izan dituzte urte hasieran (-% 1,9 prezio konstanteetan)

Hala eta guztiz ere, dinamismo hori apaldu egin da prezioen efektua kenduta (-% 1,9); adierazle horrek benetan esaten du zein den jardueraren martxa. Modu horretan, emaitza orokorraren oinarria gainerako produktuen salmenten jaitsiera izan da (-% 4,3), elikagaien joera lauagoaren aurrean (-% 0,2). Azkenik, merkataritza-gune handiek enpleguaren azken hiru hiruhilekoetako dinamismoa mantendu dute eta urtea hazkunde berri batekin hasi dute (+% 2,5).

## Merkataritza-gune handietako salmentak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	(prezio arruntak)				(prezio konstanteak)			
	23.II	23.III	23.IV	24.I	23.II	23.III	23.IV	24.I
<b>Salmentak</b>	<b>8,5</b>	<b>9,8</b>	<b>4,7</b>	<b>4,2</b>	<b>0,1</b>	<b>1,4</b>	<b>-0,9</b>	<b>-1,9</b>
Elikagaiak	12,8	12,5	7,4	7,5	2,2	3,5	0,6	-0,2
Gainerako produktuak	1,6	5,4	0,0	-1,6	-3,0	-1,6	-2,9	-4,3
<b>Landunen indizea</b>	<b>2,7</b>	<b>1,8</b>	<b>2,6</b>	<b>2,5</b>	--	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Oinarria: 2015. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak. Iturria: Eustat

Urteko lehen hiruhilekoan Bizkaian 3.296 ibilgailu berri matrikulatu ziren (+% 5,3 urtetik urterako tasan); emaitza positiboa da, baina atzeratu egiten du 2023an erregistratutako hobekuntza (+% 32,4, +% 7,9, +% 7,3 eta +% 15,2, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean). Emaitza horren arrazoia izan da partikularren kanalaren jokaera ona (+% 11,5 urte artean), enpresen eta bestelako ibilgailuen jaitsiera konpentsatzen duena (-% 6,4 urte artean).

Ibilgailuen matrikulazioak positiboan hasi du urtea (+% 5,3)

Hala eta guztiz ere, hiruhileko arteko matrikulazioaren bilakaera negatiboa izan da (-% 8,4), ibilgailu partikularren (-% 7,7) eta enpresen eta beste batzuen (-% 9,9) matrikulazioek behera egin zutelako.

## Ibilgailuen matrikulazioa

	2023.II	2023.III	2023.IV	Zk.	2024.I	
					Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
<b>Guztira</b>	<b>3.524</b>	<b>2.781</b>	<b>3.598</b>	<b>3.296</b>	<b>-8,4</b>	<b>5,3</b>
Partikularrak	2.230	1.886	2.471	2.281	-7,7	11,5
Enpresakoak eta beste batzuk	1.294	895	1.127	1.015	-9,9	-6,4

Bizkaiko datuak. Iturria: Anfac

Hiribilduko merkataritza-adierazleak sektoreko afiliazioari buruzko informazioarekin osatzen dira. Horrekin lotuta, martxoko datuetan ikus daiteke merkataritza-sektorea azken urtean hiribilduan enplegua galdu duten zerbitzuen sektoreko bi adarretako bat dela (-% 1,2).

Bilbok afiliazioa eta merkataritza-enpresa sarea galdu du

Galera horren arrazoia txikizkako merkataritzako afiliazioak gutxitu izana da (-% 2,1); aurreko datuak erregistratutako doikuntza jasotzen du beherapenen kanpainak bukatu eta gero eta abenduko datuarekin konparatzen da, urtarokotasunarengatik gora doana, Gabonetako kanpaina dela-eta. Gainera, multzoan garrantzitsua denez (martxoan merkataritza-sektorearen % 71,5), bilakaera negatibo hori ezin da konpentsatu ibilgailuen salmenta eta konponketaren dinamismoarekin (+% 2,9) eta pisu erlatibo txikiagoa duen handizkako merkataritza mantentzearekin (+% 0,4).

Enplegu-galerarekiko modu paraleloan, hiribilduak bere enpresa-sarea gutxitu du (-% 2,2 urte artean) handizkako merkataritzako enpresa-kopurua (-% 3,3) eta txikizkako merkataritzakoa (-% 2,0) jaitsi direlako, eta bere aldetik, ibilgailuen salmenta eta konponketetan ari diren enpresen kopurua mantendu egin da (% 0,0).

## Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2023.06	2023.09	2023.12	2024.03	2024.03; Δ %	
					Hiruhilekotik hiruhilekora	Urte artekoa
<b>Afiliatuak<sup>1</sup></b>	<b>19.264</b>	<b>19.299</b>	<b>19.686</b>	<b>18.871</b>	<b>-4,1</b>	<b>-1,2</b>
Handizkako merkataritza	4.172	4.263	4.263	4.249	-0,3	0,4
Txikizkako merkataritza	13.967	13.911	14.293	13.487	-5,6	-2,1
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.125	1.125	1.130	1.135	0,4	2,9
<b>Enpresak<sup>2</sup></b>	<b>2.387</b>	<b>2.370</b>	<b>2.395</b>	<b>2.352</b>	<b>-1,8</b>	<b>-2,2</b>
Handizkako merkataritza	586	593	591	582	-1,5	-3,3
Txikizkako merkataritza	1.639	1.614	1.638	1.604	-2,1	-2,0
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	162	163	166	166	0,0	0,0
<b>Soldatapeko batez besteko enplegua<sup>3</sup></b>	<b>5,9</b>	<b>5,9</b>	<b>6,0</b>	<b>5,8</b>	--	--
<b>Enplegu autonomoaren %</b>	<b>27,2</b>	<b>27,1</b>	<b>26,5</b>	<b>27,6</b>	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, Araubide Orokorreko afiliatorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio kontuen guztizkoari dagokionez.  
Iturria: GSDN

## TURISMOA

2024ko lehen hiruhilekoan hiribilduko hotel-jarduera apalki hazi zen ostatu-gauetan (+% 0,6) eta bidaiarietan (+% 1,0). Zehazki 410.679 ostatu-gau dira; zifra garrantzitsua da, kontuan hartuta jarduera-bolumen txikieneko urteko hiruhilekoa dela. Erregistratutako hobekuntzaren faktore erabakigarria izan da 3 izar eta gehiagoko hotelen segmentuaren hobekuntza (+% 3,6), kategoria txikiagokoen taldearen jaitsiera (-% 8,6) konpentsatu zuena. Gainera, atzerriko segmentuaren joera ona (+% 12,2) azpimarratu beharra dago, estatukoek behera egin baitzuten (-% 6,6).

Jarduera turistikoa apal hasi da martxan (+% 1,0 eta % 0,6, bidaiari eta ostatu-gauetan)

Bidaiari-kopuruaren bilakaerak (221.474 bidaiari) antzeko patroia du, eta ostatu-gauetan bezala (+% 11,1) nabarmenki hazi dena da eta estatuko bidaiarien jaitsiera konpentsatzen du (-% 4,3). Aurreko guztiarekin, Bilboko hotel-establezimenduen batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da, atzerritarrena baino pixka bat handiagoa (2,08 egun, estatuko bisitarien 1,71 egunen aldean).

Atzerriko segmentuan babestua, estatuko atzerapena konpentsatzen duena

### Turismoa

	2023.IV	2024.I.	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % Urte artekoa
<b>Ostatu-gauak</b>	<b>515.312</b>	<b>410.679</b>	<b>-20,3</b>	<b>0,6</b>
3 izar eta gehiagoko hotelak	385.391	319.902	-17,0	3,6
3* baino gutxiagoko hotelak eta pentsioak	129.921	90.777	-30,1	-8,6
Estatukoak	274.393	235.252	-14,3	-6,6
Atzerritarrak	240.919	175.427	-27,2	12,2
<b>Bidaiariak</b>	<b>274.476</b>	<b>221.474</b>	<b>-19,3</b>	<b>1,0</b>
Estatukoak	158.990	137.228	-13,7	-4,3
Atzerritarrak	115.486	84.246	-27,1	11,1
<b>Batez besteko egonaldia</b>	<b>1,88</b>	<b>1,85</b>	<b>--</b>	<b>--</b>


Batez besteko egonaldia: ostatu-gauak/bidaiariak (egunak) \*Aldakuntza ehuneko puntuetan.  
Iturria: Eustat

Bidaiari-kopuruaren hileko bilakaerarekin egiaztatu da erregistratutako atzerapena urtarrilekoa izan dela (-2.361 bidaiari), eta otsaileko eta martxoko hobekuntzek konpentsatu egin zuten (+2.037 eta +2.618 bidaiari, hurrenez hurren). Halaber, ostatu-gauetako urtarrileko eta otsaileko dinamismo txikiagoa baieztatzen dute (-4.712 eta -4.256 ostatu-gau, hurrenez hurren), baina ez martxoan (+11.788 ostatu-gau); martxoko hobekuntzaren faktoreetako bat 2024ko Aste Santua izan zen<sup>28</sup>.

<sup>28</sup> 2024ko Aste Santua martxoaren 28tik (Ostegun Santua) apirilaren 1era (Pazko Astelehena) izan zen, eta 2023an apirilaren 6tik 10era.



## Bidaiariak eta ostatu-gauak hotel- establezimenduetan Bilbon



Iturria: Eustat

Erreferentzia-hiriburuak bilakaera ezberdinak izan dituzte ostatu-gauen jokoeran. Bakarrik Valentziak hobetu ditu zifrak (+% 1,9), eta estatuko gainerako erreferentzia-hiriburuak jaitsierak erregistratu zituzten. Hala, estatuko hiriburu guztientzat (G-5) zenbatutako ostatu-gauak atzera egin dute (-% 2,5 urte arteko tasan). Euskal hiriburuaren artean, azpimarratzekoa da Donostiaren (+% 20,0) eta Gasteizen (+% 15,1) dinamismoa, eta Iruñean jaitsiera gertatu zen (-% 8,0). Batera, euskal hiriburuak (G-3) % 9 gehitu zituzten hotel-establezimenduetako gauak.

Hiriburu handien artean bakarrik Valentzia hobetu da eta gure inguruan Donostia azpimarratu behar da

## Benchmarkina. Ostatu-gauak

	2023.IV	2024.I.	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % Urte artekoa
Madril	4.776.694	4.740.924	-0,7	-1,7
Bartzelona	4.424.644	4.751.214	7,4	-7,9
Valentzia	993.231	1.112.403	12,0	1,9
Sevilla	1.436.275	1.540.953	7,3	-1,8
Zaragoza	451.061	456.868	1,3	-3,1
<b>G-5aren batez bestekoa</b>	--	--	<b>5,4</b>	<b>-2,5</b>
<b>BILBO</b>	<b>515.312</b>	<b>410.679</b>	<b>-20,3</b>	<b>0,6</b>
Vitoria-Gasteiz	196.126	182.796	-6,8	15,1
Donostia-San Sebastián	444.502	386.339	-13,1	20,0
Pamplona-Iruñea	127.959	127.242	-0,6	-8,0
<b>G-3ren batez bestekoa</b>	--	--	<b>-6,8</b>	<b>9,0</b>
<b>G-9ren batez bestekoa</b>	--	--	<b>-1,5</b>	<b>1,7</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: Eustat eta EIN

## GARRAIOA

### Aireko garraioa

2024ko lehen hiruhilekoan Loiuko aireportutik 1.298.636 bidaiari garraiatu ziren, hau da, urte arteko % 15,9ko hazkundera eta 178.588ko irabazi garbia<sup>29</sup>. Hala eta guztiz ere, emaitza negatiboa izan da hiruhileko artean, % 15,4ko galerarekin (-235.940 pertsona), hiruhileko horretan jaiegunen bi zubi<sup>30</sup> eta Gabonetako astea izan baitziren.

Loiuko aireportuan bidaiariak nabarmenki gehitu ziren (+% 15,9 urte arteko tasan)

Estatuko eta nazioarteko bidaiariak gehitu egin dira, eta nabarmenagoa da atzerritarren segmentuaren hazkundera. Zehazki, estatuko segmentua merkataritza-hegaldi guztien % 64,1 da eta azken urtean % 10,9 hazi da, eta nazioarteko segmentua (guztiaren % 35,9) % 26,1 gehitu da.

Emaitza on hori Loiuko aireportuko operazio-kopuruan ikusten da baita ere; urtetik urtera % 5,5 gehitu da, zehazki, 10.428 operazio.

### Aireko garraioa

	2023.III	2023.IV	2024.I.	Δ % Urte artekoa	Δ % hiruhileko artekoa
<b>Bidaiariak (kop.)</b>	<b>1.975.090</b>	<b>1.534.576</b>	<b>1.298.636</b>	<b>15,9</b>	<b>-15,4</b>
Hegaldi komertzialak	1.971.466	1.531.542	1.295.461	15,9	-15,4
Estatu mailakoak	1.098.079	921.330	829.943	10,9	-9,9
Nazioartekoak	873.387	610.212	465.518	26,1	-23,7
<b>Hegaldiak (kop.)</b>	<b>15.080</b>	<b>12.475</b>	<b>10.428</b>	<b>5,5</b>	<b>-16,4</b>


Behin-behineko datuak.  
Iturria: Aena

Aireko trafikoaren hileko banaketak aireportuko jardueraren hobekuntza berresten du eta hazkunde sostengatua gertatu da bidaiarien mugimenduan 2023rekin alderatuta. Hala, 2024an hobetu egin da 2023ko lehen hiru hilabeteetan erregistratutako bidaiarien zifra; zehazki, urtarrilean (+% 11,9, +40.490), otsailean (+% 17,8; +62.078) eta martxoan (% 17,6; +76.020) bidaiariak gehitu egin ziren. Hobekuntza hori estatuko eta nazioarteko segmentuak partekatzen du; kasu bietan 2023ko urtarriletik martxora erregistratutako bidaiarien zifrak gaintu egin ziren.

<sup>29</sup> Hazkunde handiaren arrazoi nagusietako bat da 2024ko Aste Santua martxoko azken astean izan dela eta Pazko Astea apirilko lehen astean. Hala eta guztiz ere, 2023an Aste Santuarekin bat etorritz, mugikortasun handieneko bi asteak apirilean izan ziren.

<sup>30</sup> Urriari hispanitatearen zubia, Konstituzioaren eta Sortzez Garbiaren jaiekin batera.

## Bidaiariak Loiuo aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren arabera sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.  
Iturria: Aena

Bidaiarien urte arteko gehikuntza nagusi da Bilborako erreferentzia diren ia aireportu guztietan —Zaragoza (-% 6,4) eta Gasteiz (-% 15,6) salbu—, eta Sevillan (+% 17,1), Valentzian (+% 15,1), Bartzelonan (+% 14,7), Madrilen (+% 10,6) eta Iruñean (+% 20,9) bi zifrako hazkundeak gertatu ziren, Donostiako hobekuntzarekin (+% 5,7) batera. Trafikoaren bilakaera positibo horren arrazoietakoa bat da aireportu gehienek <sup>31</sup> hegaldi gehiago eskaintzen dituztela. Hala, urte-hasiera oso onak eta udarako itxaropen positiboek aireportuarentzat urtea ona izango dela aurreikusten dute.

## Benchmarkina bidaiariak aireportuak

	2023.III	2023.IV	2024.I	Δ % Urte artekoa	Δ % hiruileko artekoa
Madril	16.488.702	15.243.469	14.850.086	10,6	-2,6
Bartzelona	14.502.525	12.290.912	11.440.126	14,7	-6,9
Valentzia	3.057.436	2.383.977	2.128.059	15,1	-10,7
Sevilla	2.135.525	2.091.752	2.050.551	17,1	-2,0
Zaragoza	206.365	150.319	141.944	-6,4	-5,6
<b>Metatua G-5</b>	--	--	--	<b>10,2</b>	<b>-5,6</b>
<b>BILBO</b>	<b>1.975.090</b>	<b>1.534.576</b>	<b>1.298.636</b>	<b>15,9</b>	<b>-15,4</b>
Vitoria-Gasteiz	102.011	61.092	44.171	-15,6	-27,7
Donostia-San Sebastián	149.824	116.503	89.130	5,7	-23,5
Pamplona-Iruñea	52.243	54.555	52.411	20,9	-3,9
<b>Metatua G-3</b>	--	--	--	<b>3,7</b>	<b>-18,4</b>
<b>Metatua G-9</b>	--	--	--	<b>8,7</b>	<b>-10,9</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
bb: behin-behinekoa.  
Iturria: Aena

<sup>31</sup> Konpainia eta ibilbide berriak gehitzea, esaterako.

## Itsas garraioa


Bilboko Portuan 2024ko lehen hiruhilekoan kudeatutako salgaien trafikoa 8,5 milioi tonakoa izan da, hau da, urte arteko % 8,4ko gehikuntza. Azpimarratzekoa da martxoko emaitza positiboa, garraiatutako 3 milioi tonakoa (+% 10,8 urtetik urtera), urtarrileko gorakadaz gain (+% 22,6), baina otsaileko emaitza negatiboa izan zen (-% 5,2); azken horrek gutxitu egin du Bizkaiko kaiaren hiruhileko emaitza ona.

Bilboko Portuko jarduera  
% 8,4 hazi da

Lehen hiruhilekoan erregistratutako hazkundera (+% 8,4) babesten du salgai likidoen dinamismoak (+% 18,8), zeintzuek portuko jardueraren zati handiena osatzen duten (% 67,3), egiaztatu baita salgai solidoen (-% 15,6) eta salgai orokorren (-% 0,9) trafikoa behera egin dutela. Edonola ere, eta nahiz eta portuak urteko lehen hiruhilekoan emaitza positiboak izan, jarduerak oraindik ere pandemia aurreko mailen azpitik dirau (9,0 milioi tona 2019ko lehen hiruhilekoan), eta horren arrazoi nagusia da salgai likidoen eta orokorren bilakaera (-% 34,8 eta -% 24,9, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta), salgai likidoen berreskuratzeak (+% 11,7) ezin izan baitu konpentsatu.

Azkenik, portuak 593 ontzi kudeatu ditu. 28 unitate galdu ditu 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta (-% 4,5) eta garraiatutako edukiontziak 113.749 (-% 8,1) izan dira, eta gutxitu egin da baita ere edukiontzietan garraiatutako salgai-kopurua (-% 3,5).

## Salgaien itsasoko garraioa



Iturria: Estatuko Portuak.

## EKONOMIA PRODUKTIBOA

### Barne Produktu Gordina


Bizkaiko 2023ko hazkunde ekonomikoa % 1,7koa izan da; EAEn erregistratutako zifraren (+% 1,8) oso antzekoa da; azken horrek hazkunde-maila normalizatuagoa berreskuratzen du (ekonomia aurreratu-heldu batentzat), hiru ekitaldiz jarraian patroia ez-ohikoa izan eta gero pandemiaren eta pandemia ondorengo garaiaren, Ukrainaren errusiar inbasioaren hasieraren eta gorakada inflazionista handiaren ondorioz, beste batzuen artean. Hala, Bizkaiko ekonomiak 2023an hazkunde-profila mantendu du, baina bigarren seihilekoan leundu egin da (+% 2,4, +% 1,4, +% 1,3 eta +% 1,6 urte arteko tasan).

2023an Bizkaiko ekonomia % 1,7 hazi da

Halaber, pixkanaka, Bizkaik lurraldean sortutako enpleguari eusten dio 494.215 lanposturekin (lanaldi osoko baliokidetzan); beste modu batera esanda, urte arteko % 1,7ko hazkunde gertatu da eta orain dela urtebete baino 8.172 lanpostu gehiago daude. LOB lanpostuak ia-ia milioi erdi dira, eta zifra hori bakarrik 2007an eta 2008an gainditu zen (503.064 eta 504.164, hurrenez hurren).

EAEko 2024ko lehen hiruhilekoaren aurrerapen-datuek berretsi dute (Bizkaientzat adierazgarriak dira) BPGd-ak hazteko joera duela (+% 0,5 eta +% 1,6 hiruhileko arteko eta urte arteko tasan), eta enplegua nabarmenki hazi zen (+% 0,5 eta +% 2,0 hiruhileko arteko eta urte arteko tasetan). Horrenbestez, urte hasieran indartu egin da 2023ko bigarren hiruhilekoan erregistratutako ekonomiaren eta enpleguaren dinamismo-joera.

### Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro eta egutegi ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean, 2015eko oinarrian.

## Industria

<sup>32</sup>Bizkaiko industria-ekoizpenak urte hasieran (urtarrila-otsaila bihilekoa) jardueraren hazkunde handia izan du (urte arteko +% 1,7) ; datu, horrek, egiaz 2023ko hobekuntza-eritmoa gaitu du (+% 0,6, +% 0,4, -% 0,3 eta +% 0,8, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean). Eraitza horren arrazoia manufakturen industriaren dinamismoa da (+% 2,6 urte artean); horren hazkundera erabakigarria da multzoan duen pisuarengatik, eta horri gehitzen zaio energia, gasa eta urak erregistratutakoa (+% 1,5), erauzketa-industrien (-% 15,1) eta uraren (-% 4,5) jaitsierak konpentsatuz.

Bizkaiko industria-jarduerak bultzada handia izan du urte hasieran (+% 1,7)

## Industria

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	2023.I	2023.II	2023.III	2023.IV	2024.I.
<b>Ekoizpen-tasa</b>	<b>0,6</b>	<b>0,4</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,8</b>	<b>1,7</b>
Manufaktura-industria	3,7	2,3	3,2	3,1	2,6
Erauzketa-industriak	-1,2	-3,3	4,0	-23,9	-15,1
Energia, gasa eta lurruna	-17,6	-13,7	-19,0	-13,8	1,5
Ura	4,0	7,7	-2,9	-3,6	-4,5

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urtetik urterako aldakuntza. 2024ko lehenengo hiruhilekoko datuak urtarrilekoak eta otsailekoak dira.  
Iturria: Eustat

## Merkatuko zerbitzuak

Bizkaiko urteko laugarren hiruhilekoko zerbitzuen sektorearen salmentek erakutsi dute sektoreak 2021ean hasitako hobekuntza-eritmoari eusten diola eta 2023 bukaeran serieko salmenta-indize handiena izan zuen (134,1). Horri lotuta, urteko laugarren hiruhilekoak % 6,2ko urte arteko gehikuntza izan zuen (prezio arruntetan), eta urtean zehar zerbitzuen salmenten joera ona indartu zen (+% 5,5, +% 1,5 eta +% 4,6, lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan).

Zerbitzuen sektoreko salmentek hazteko joera mantendu dute

## Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2023.II	2023.III	2023.IV	2023.II	2023.III	2023.IV
<b>Merkatu-zerbitzuen salmentak</b>	<b>1,5</b>	<b>4,6</b>	<b>6,2</b>	<b>2,2</b>	<b>4,0</b>	<b>2,6</b>
<b>Landunen indizea</b>	<b>0,6</b>	<b>0,1</b>	<b>-1,3</b>	--	--	--


Bizkaiko datuak (2015eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (datu gordinak) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.  
Iturria: Eustat

<sup>32</sup> Industri Produkzioaren Indizeak (IPI) industria sektoreko faktoreen kostuko balio erantsi gordinaren bolumenak (ekoizpen-mailak) izandako bilakaera jasotzen du, prezioa kontuan hartu gabe, eta hori industriako prezioen indizearen (IPRI) bidez jasotzen da.

Prezioen efektua kenduta (prezio konstanteak)<sup>33</sup> laugarren lauhilekoko merkatu-zerbitzuen jardueren salmentek positiboak izaten jarraitzen dute, baina logikoaenez, gutxiago hazi dira (+% 2,6). Hala eta guztiz ere, jardueraren dinamismoaz haratago, enplegua gutxitu egin da urtean zehar (-% 0,3).

Atxikitako grafikoan zerbitzuen jardueraren bilakaera azaltzen da azken lau urteetan eta jardueretan 2020an eta 2021eko zati batean gertatutako jaitsiera erakusten du. Bi urte (2022 eta 2023) behar izan dira bide normalizatura itzultzeko. 2024an egiaztatuko da ea lortutako erritmoa finkatzen den edo errebote-efektua nagusitu den, pandemiak sortutako atzerapenarengatik.

## Merkatuko zerbitzuen salmentak



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta (prezio arruntak). Uneko urteko behin-behineko datuak. 2015eko oinarria  
Iturria: Eustat

<sup>33</sup> Eustatek jada ez du lurralde historikoen informazio bereizia jardueraren arabera argitaratzen, eta horrenbestez, ez dugu Bizkaiko datu bereizirik. EAEko datuek diote sektore-salmentak (prezio arruntak) % 6,0 hazi direla 2023ko laugarren hiruilekokoan (urte artean), bost azpisektoreen dinamismoak lagunduta. Azpimarratzekoak dira ostalaritza (+% 10,9) eta informazioa eta komunikazioak (+% 12,8). Sektorearen benetako hazkundea positiboa da baita ere (+% 2,5), baina administrazio-jardueren eta zerbitzu osagarrien salmentak gutxitu egin ziren (-% 1,1).

## Kanpoko merkataritza

2024 hasieran (urtarrila-otsaila) Bizkaiko kanpo-jardueran gutxitu egin dira esportazioak (-% 14,0) eta inportazioak hobetu dira (+% 16,0), baina bi segmentuen moneta-balioak atzera egin du (-% 11,8 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, esportazioen balioan erregistratutako murrizketa bolumenean erregistratutakoa baino txikiagoa izan da; horrenbestez, lurraldetik esportatutako tona bakoitzaren batez besteko prezioak gora egin du (1.580 euro), baina inportazioen batez besteko prezioa gutxitu egin da (883 euro).

Bizkaiko kanpo-jarduera moteldu egin da

Bilakaera berdina gertatu da osagai ez-energetikoan, hau da, nagusiki lurraldearen manufakturen industriari lotuta dagoen kanpo-jarduera. Hala, emaitzek jarduera horren balio erantsi handiagoa erakusten dute. Esportatutako eta inportatutako tona bakoitzaren batez besteko prezioak (2.299 eta 1.613 euro, hurrenez hurren) argi eta garbi gainditzen du energia-osagaiari dagokion balioa (669 eta 548 euro), intsumo-baldintza handiagoarekin eta/edo elaborazio erlatibo txikiagoarekin. Hala eta guztiz ere, kanpo-jarduera ez energetikoak profil ez hain dinamikoa izango luke (jaitsiera handiagoak eta igoera txikiagoak) eta emaitza horrek argi erakutsiko luke lurraldeko eta Europako industria-jardueraren moteltzea (Europa da inportazioen helmuga nagusia).

### Kanpoko merkataritza; moneta balioa eta bolumena.


	2023.II	2023.III	2023.IV	I.2024 <sup>1</sup>	Urte arteko Δ (%)	
					2023.IV	I.2024 <sup>2</sup>
<b>Bolumena (milaka tona)</b>						
<b>Esportazioak, guztira</b>	1.712,7	1.638,8	2.460,0	1.203,6	6,8	-14,0
Esportazio ez energetikoak	1.167,8	1.021,8	1.238,0	688,6	8,1	-14,3
<b>Inportazioak, guztira</b>	4.809,4	4.602,3	3.860,9	2.965,3	-16,5	16,0
Inportazio ez energetikoak	1.375,6	1.355,1	1.177,9	882,9	-5,1	8,4
<b>Balioa (milioi euro)</b>						
<b>Esportazioak, guztira</b>	2.944,5	2.740,6	3.295,2	1.901,7	1,1	-11,8
Esportazio ez energetikoak	2.663,1	2.344,6	2.518,8	1.583,1	-0,8	-12,3
<b>Inportazioak, guztira</b>	4.042,4	3.894,2	3.522,7	2.618,2	-21,9	-1,2
Inportazio ez energetikoak	2.327,0	2.070,0	1.948,1	1.423,9	-15,1	-11,0

Bizkaiko datuak. 1. Urtarril-otsailari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko urtarril-otsailaren aldean  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bizkaiko kanpo-merkataritzaren saldoak defizitariora izaten jarraitzen du (-716,5 mila euro), baina osagai ez-energetikoan arinki positiboa da (+159,3 mila euro), esportazioen pisu handiagoa dela-eta. Beste alde batetik, atxikitako grafikoak argi uzten du jarduera ez energetikoak esportazioen eta inportazioen balioan duen pisu garrantzitsua (% 83,2 eta % 54,4), bolumenean ekarpena gaindituz (% 57,2 eta % 29,8, hurrenez hurren).




## Esportazio eta inportazio ez energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2024ko lehen hiruhilekoko behin-behineko datua, urtarril-otsailari dagokiona.  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Azkenik, Bizkaiko kanpo-jardueraren pisu ekonomikoa pixka bat berreskuratu da 2023ko laugarren hiruhilekoan, 2022ko bigarren hiruhilekotik aurrera erregistratutako galera-profilaren ondoren. Zehazki, 2023ko laugarren hiruhilekoan<sup>34</sup> esportazioen balioa lurraldeko BPGd-aren % 27,5koa izan zen, eta urteko batez besteko % 26,3ko ekarpena bigarren eta hirugarren hiruhilekoen emaitza okerragoek (% 25,1 eta % 23,3 hurrenez hurren) baldintzatu zuten. Horrenbestez, ratio hori (2023) pandemia aurreko urteetan erregistratutako balioetatik hurbilago dago (% 25,9, % 27,7 eta % 24,3, 2017an, 2018an eta 2019an).

## Esportazioaren ratioa BPGd-arekin alderatuta (%)



Bizkaiko datuak  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoko kontuak (Eustat; oinarria: 2015)

<sup>34</sup> Eskuragarri dagoen azken informazioa, hiruhilekoko kontu ekonomikoen arabera (Eustat).

## ENPRESA-JARDUERA


### Sozietate berriak

2024ko lehen hiruhilekoan 231 merkataritza-sozietate berri sortu ziren Bilbon. Horrek esan nahi du % 1,3 hazi zela 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta 2018ko bigarren hiruhilekotik sozietateen sorreraren emaitzarik onena da (233).

Sozietate berrien sorrerak hazten jarraitzen du

Zerbitzuen sektorekoak dira oraindik ere sozietate berri gehienak (guztiaren % 81,4, eta 188 sozietate berri), eta ondoren industria eta energia (% 10,0) eta eraikuntza (% 8,7) daude. Jarduera-adarren arabera, jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak (32 sozietate berri), ostalaritza (27 sozietate), merkataritza eta konponketak (25 sozietate), finantza- eta aseguru-jarduerak (20 sozietate) eta higiezin jarduerak (20 sozietate) dira hirian sortutako sozietateen % 54,1.

### Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

### Merkataritza-sozietate berriak

	2023.II	2023.III	2023.IV	2024.I.	hiruhileko artekoa	Urte artekoa
<b>Sozietate berriak</b>	215	162	223	231	3,6	1,3
Lehen sektorea	0	0	0	0	--	--
Industria eta energia	12	3	17	23	35,3	-23,3
Eraikuntza	28	12	25	20	-20,0	0,0
Zerbitzuak	175	147	181	188	3,9	5,6

Iturria: Merkataritza Erregistroa

## Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2024ko lehen hiruhilekoa)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	32
Ostalaritza	27
Merkataritza eta konponketak	25
Finantza eta aseguru jarduerak	21
Higiezinen jarduerak	20

Iturria: Merkataritza Erregistroa

## Desegindako sozietateak

Beste alde batetik, Bilbon 134 sozietate desegin ziren denbora-tarte berean, orain dela urtebete baino % 30,1 gehiago. Jarduera-sektoreen arabera, eta sozietateak sortzearekin gertatzen den bezala, zerbitzuen sektoreak osatzen du enpresen itxieraren zatirik handiena, eta bat dator lau sozietate hiru desegitearekin. Azpimarratzekoak dira merkataritza eta konponketak (20), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (18) eta higiezinen jarduerak (16).

Desegin diren sozietateen kopuruak ere gora egin du

Guztiarekin, hiribilduko enpresa jardueraren saldo garbia positiboa da, sozietate gehiago sortu baitira desegin baino, eta 97 sozietate gehiago daude Bilboko ekoizpen-sarean.

## Desegindako sozietateak

	2023.II	2023.III	2023.IV	2024.I.	hiruhileko artekoa	Urte artekoa
<b>Desegindako sozietateak</b>	<b>72</b>	<b>48</b>	<b>94</b>	<b>134</b>	<b>42,6</b>	<b>30,1</b>
Lehen sektorea	0	1	0	0	--	--
Industria eta energia	2	2	3	7	133,3	40,0
Eraikuntza	8	4	15	24	60,0	118,2
Zerbitzuak	62	41	76	103	35,5	18,4

Iturria: Merkataritza Erregistroa

## Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2024ko lehen hiruhilekoa)

Eraikuntza	24
Merkataritza eta konponketak	20
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	18
Higiezinen jarduerak	16
Informazioa eta komunikazioak	14

Iturria: Merkataritza Erregistroa

## 2024ko I.hiruhilekoa

	Adierazleak		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Aldia
<b>LAN-MERKATUA</b>			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	162,1	-1,8	I. hiruhilekoa
Landunak (milakotan)**	145,4	-1,8	I. hiruhilekoa
Biztanleria langabea (milakotan)**	16,7	-2,3	I. hiruhilekoa
Langabezia tasa (%)**	10,3	-0,1*	I. hiruhilekoa
Erregistratutako biztanleria langabea (pertsona kop.)**	21.963	3,1	martxoa
Afiliatuak (kop.)	191.703	3,0	martxoa
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	26.718	7,6	I. hiruhilekoa
<b>MERKATARITZA</b>			
Afiliatuak	18.871	-1,2	martxoa
Kontsumoko prezioak (indizea)***	114,8	3,3	martxoa
<b>TURISMOA</b>			
Ostatu gauak (kop.)	410.679	0,6	I. hiruhilekoa
Bidaiariak (kop.)	221.474	1,0	I. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiariak)	1,85	-0,01*	I. hiruhilekoa
<b>GARRAIOA</b>			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.489,4	8,4	I. hiruhilekoa
Bidaiariak airez garraiatzea	1.298.636	15,9	I. hiruhilekoa
<b>ENPRESA-JARDUERA</b>			
Industria-produkzioa (indizea)**	222,7	1,7	Urt-Ots
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	231	1,3	I. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	134	30,1	I. hiruhilekoa

\* Portzentaje puntuak.

\*\* Bilboko egoiliarak.

\*\*\*Bizkaia iri dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziako aldiko agregazio indizean oinarrituta. Oinarritzko urtea aldatzea (2021)

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.